Hernaniko Udala

# *OSOKO BILKURA*

# *HERNANIKO UDALAK 2026KO MARTXOAREN 31AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA*

*ALKATEA:*
*Xabier Lertxundi Asteasuinzarra*

*ALKATEORDEAK:*
*Itsaso Lekuona Legorburu*
*Patxi Ibarguren Etxeberria*
*Ainara Atorrasagasti Urizar*
*Aitor Lukas Solano*

*ZINEGOTZIAK:*
*Axier Mingo Arruabarrena*
*Amaia Miner Canflanca*
*Aitor Huizi Izagirre*
*Oier Agirresarobe Lizaso*
*Kistiñe Rodríguez Polaina*
*Andoni Amonarraiz Gómez*
*José Antonio Cuesta Solé*
*Blanca Alberro Aranzasti*
*Myryam Vazquez Vecino*
*Mikel Gurutzeaga Zubillaga*
*Ismael Ganchegui Gonzalez*
*Ricardo Crespo Rubio*
*Maria Jesus Ruiz Ochoa*
*Jaione Aristregi Cao*
*Lurdes López Gorrotxategi*

*BEHIN-BETIKO UDAL IDAZKARIA:*
*Aitor Iztueta GAraikoetxea*

*2026eko martxoaren 31an osoko bilkura egin da udaletxean, arratsaldeko 18:00etan, aurrez deialdia egina zegoelarik. Bilera Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako zinegotziak eta neu, Aitor Iztueta Garaikoetxea behin-betiko udal idazkaria.*

*Gai zerrenda:*

1. 2026-02-24KO OSOKO BILKURAKO 02-2026 AKTA ONARTZEA

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR00359 DEKRETUTIK 2026DEKR0688 DEKRETURA.

3. KREDITU GAIKUNTZA BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2026-KALD-000004-00 ESPEDIENTEA ONARTZEA

4. EREÑOTZUKO TOKI ENTITAE TXIKIAREKIN LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA

5. GALDERA ETA ESKARIAK

## 1. 2026-02-24KO OSOKO BILKURAKO 02-2026 AKTA ONARTZEA

Alkatea.- Arratsalde on, denei. Seiak dira eta honekin martxoko osoko bilkurari hasiera emango diogu.

Ohikoa den moduan, lehenengo puntuan daukagu aurreko osoko bilkuraren akta. Ez dakit aktaren inguruan badaukazuen zerbait aipatzeko... Ados aktarekin? Beraz, ontzat emango dugu.

## 2. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR00359 DEKRETUTIK 2026DEKR0688 DEKRETURA.

Alkatea.- Bigarren puntua ere plenoero ekartzen dugun puntua da, dekretuen zerrendaren berri ematea. 359 zenbakidun dekretutik 688 zenbakidun dekretura. Zerrenda guztia pasa zaigu, badaukagu dekretu guztiak ikusteko aukera... Ez dakit bateren baten inguruan zalantzarik, galderarik edo zerbait baden. Ez badago ezer, aurrera egingo dugu.

## 3. KREDITU GAIKUNTZA BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2026-KALD-000004-00 ESPEDIENTEA ONARTZEA

Alkatea.-Honekin, hirugarren puntura pasako gara. Kreditu gaikuntza bat da. Aurrekontuan egin beharreko aldaketa bat eta kreditu gaikuntza bat. Galarreta 06 eremua edo gaur egun zerrategiak eta Auto Suecia ondoko Butano deitzen zaion eremuak osatzen du Galarreta 06. Gure arauetan badago horren garapena. Egia da garapen hau denboran asko luzatzen ari den kontua dela. Bere garaian Hernaniko Udalak erabaki bat hartu zuen eta eremu horren garapena kooperazioz egitea izan

ESKU2b59d181-0d62-4325-8c6d-507930878cb8

zen. Hau da, Udalak hartzea garatzeko ardura. Eta horregatik aurrekontuan aldaketa bat egin behar dugu, hori garatzen ari garelako, aurrera doalako eta 1.384.000 euroko gaikuntza bat egin behar dugu aurrekontuan.

Honek ez du esan nahi Udalak jarriko duenik diru hau. Udalak egiten duena da diru hau aurreratu, gero jabe guztiek bakoitzari dagokion proportzioan Udalari bueltatzeko.

Erabaki hau bada estrategikoa, erabaki hau bada bere garaian Udalak hartu zuena eta, nolabait ere, Galarreta garapen ekonomikoaren eta enpleguaren garapenaren eremu bilakatzeko erabaki estrategikoa da. Horregatik hartu zen bere garaian eta pausoak ematen ari gara. Horregatik, beharrezkoa da aurrekontuan ere gaikuntza hau egitea.

Ez dakit honen inguruan zerbait aipatzeko badagoen. Ez badago ezer, bozkatzera pasako gara orduan. Kreditu gaikuntza bidezko kreditu aldaketa egitearen aldeko botoak? **Aho-batez onartzen da.**

## OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO EBAZPENA

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa.

**2026ko aurrekontuan kredituak gaitzeko proposamena**

| Gastuen partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 1 1410.601.02.151.20 2026 | GALARRETA-06. JARDUKETAK | 1.384.005,00 |
| **GAITU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA** | | **1.384.005,00** |

**2026ko aurrekontuko kreditu gaikuntzaren finantzaketa**

| Kod. | Sarreren partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| a | 2 650.02.151.20 2026 | GA-06-LIKIDAZIOAK | 1.384.005,00 |
| | **FINANTZAKETA GUZTIRA** | | **1.384.005,00** |

Kontu-hartzaileak egindako txostena eta ziurtagiria aztertu dira. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Antolaketako Batzorde Informatiboak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Horiek horrela Osoko bilkurak aho batez erabaki du:

**Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

ESKU2b59d181-0d62-4325-8c6d-507930878cb8

**GASTUAK**

| Kap. | Izena | Euroak |
|---|---|---|
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | 1.384.005,00 |
| **GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA** | | **1.384.005,00** |

**SARRERAK**

| Kap. | Izena | Euroak |
|---|---|---|
| 6 (SARRERAK) | INBERTSIO ERREALAK BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORI | 1.384.005,00 |
| **FINANTZAKETA GUZTIRA** | | **1.384.005,00** |

**Bigarrena.-** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

## 4. EREÑOTZUKO TOKI ENTITAE TXIKIAREKIN LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA

Alkatea.-Hurrengo puntura pasako gara. Hernaniko Udalak Ereñotzuko Toki Entitate Txikiarekin batera lankidetza hitzarmen bat egitea. Modu praktikoan, aipatzeko, Ereñotzuk bere plantillan lan pilaketagatik sei hilabeteko administrari figura baten beharra dauka, badakigu administrazio publikoan jardun osoko postuak ez diren horiek betetzeko zailtasunak izaten direla. Ereñotzutik saiatu dira modu batera edo bestera pertsona bat bilatzen, baina zailtasunak izan dituzte. Orduan, adostu duguna da Ereñotzuko Toki Entitate Txikiarekin batera gure HHZko koordinatzailea den figura jardun erdian sei hilabetez Ereñotzun aritzea eta konpartitzea; jardun erdia Hernanin egitea eta beste erdia Ereñotzun.

Erabaki hau ikusten dugu efikazia, ekonomia eta efizientzia aldetik baliagarria den eta praktikoena den erabakia dela. Modu honetan, Ereñotzuk parte batean bere beharrak aseta izango ditu, Udalak mantentzen du koordinatzailearen figura izaten, bere beharrak aseta izateko eta, hortaz, esan bezala, efizientzia eta efikazia aldetik, hitzarmen hau onartzea proposatzen dugu, bihartik aurrera apirilaren 1etik aurrera indarrean jartzeko eta HHZko koordinatzailea ere jardun erdiz Ereñotzun lanean hasi ahal izateko.

Ez dakit honen inguruan badagoen zerbait aipatzeko. Ez badago ezer, bozkatzera pasako gara. Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren lankidetza hitzarmenaren aldeko botoak? **Hau ere aho-batez onartzen da.**

### OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO EBAZPENA

Kontuan hartu da Antolaketa batzordeak 2026ko martxoaren 26ko bilkuran aho batez emandako irizpena

Hernaniko Osoko bilkurak aho batez erabaki du:



ESKU2b59d181-0d62-4325-8c6d-507930878cb8

**Lehenengoa:** Hernaniko Udaleko eta Ereñotzu Toki Entitate Txikiaren arteko lankidetza-hitzarmena (eranskin gisa).
**Bigarrena:** Bi Udal erakundeen arteko adostasuna jasotzea et interesdunari jakinaraztea.

ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Alde batetik, Xabier Lertxundi Asteasuinzarra Hernaniko Udaleko alkatea. Bestetik, Olatz Juantorena Aizpurua Ereñotzu Toki Entitate Txikiko alkate-udalburua.
Bi alderdiek hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, honako hau
I. AZALDU DUTE

Hernaniko Udaleko bitarteko funtzionario den Alazne Arotzena Oruezabala, Administrazio Orokorreko eskalako, Administratibo azpieskalako plazari dagokion HHZko koordinatzaile lanpostuan (LZ 161 zk.) dagoela izendatua.

Haren eginkizunak beharrezkoak dira Ereñotzu Toki Entitate txikia kudeatzeko eta egun dituzten betebehar administratiboei aurre egiteko.

II. Efikazia, ekonomia eta efizientzia administratiboko zein arrazoirengatik komeni den giza baliabide horren aprobetxamendu partekatua, kostuen bikoiztasuna saihestuz.

III. Bitartekotasunaren izaerak ez du eragozten zerbitzuak lankidetza-erregimenean ematea, betiere jatorrizko administrazioarekiko mendekotasun organikoa mantentzen bada.

Horiek horrela, honako erabaki hauek hartu dituzte:

KLAUSULAK

LEHENENGOA. XEDEA.

Hitzarmen honen xedea da Hernaniko Udalean bitarteko funtzionarioa den XXXXXXXXXXXX Ereñotzu Toki Entitate Txikian ere bere zerbitzu profesionalak eskaini ahal izateko baldintzak ezartzea, Hernaniko Udalean betetzen dituen HHZ koordinatzaile lanpostuari dagozkion eginkizunak egoki betetzen jarraitzeko.

Ereñotzu Toki Entitate Txikian, ondorengo eginkizunak betetzeko pertsona baten beharra dute: herritarren harrera, fakturen kudeaketa, web gunea elikatzea, ikastaro zein tailerretan izen emateak kudeatzea...

BIGARRENA. LANALDI- ETA ORDUTEGI-ARAUBIDEA.

2026ko apirilaren 1etik, Alazne Arotzena Oruezabalak Hernaniko Udaleko HHZ Koordinatzaile lanpostuan %100eko lanaldia du. Hala, hitzarmena indarrean sartzen denetik, hots, 2026ko apirilaren 1etik, lanaldia % 50ean banatuko da bi erakundeen artean.

| HERNANI | | | | |
|---|---|---|---|---|
| AStelehena | 07:00:00 | | | |
| Asteartea | 08:30:00 | 14:00:00 | 16:30.00 | 19:00:00 |
| Osteguna | | | 16:30:00 | 19:00:00 |

| EREÑOTZU | | |
|---|---|---|
| Asteazkena | 07:00:00 | 15:00:00 |
| Osteguna | 08:30:00 | 13:00:00 |
| Ostirala | 08:30:00 | 13:30:00 |

HIRUGARRENA. MENDEKOTASUN ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA.

ESKU2b59d181-0d62-4325-8c6d-507930878cb8

Hernaniko Udala

XXXXXXXXXXXXXXXk Hernaniko Udalarekin soilik izango du harreman juridikoa eta mendekotasun organikoa, bera baita bitarteko izendapena egin zuen administrazioa. Ondorio funtzionaletarako, langileak Toki Erakunde Txikiko alkatetzaren jarraibideak beteko ditu bertan zerbitzuak ematen dituen bitartean.

LAUGARRENA. ARAUBIDE EKONOMIKOA ETA FINANTZAKETA.

Bi entitateetan lana egiten duen bitartean, hots, gehienez ere 6 hilabete edo eta HHZko koordinatzaile lanpostuaren hautaketa-prozesua amaitu bitartean, Hernaniko Udalak funtzionarioaren ordainsari guztiak (oinarrizkoak eta osagarriak) eta Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzen jarraituko du.

Toki Erakunde Txikiak konpromisoa hartzen du Hernaniko Udalari lanpostuaren guztizko kostu gordinaren (soldata + gizarte segurantza + balizko haborokinak) % 50aren ordainketa egiteko langileak bi entitateetan lanean jarraitzen duen bitartean.

Hitzarmenaren bukaeran, Hernaniko Udalak gastuen likidazioa proposamena egingo du, eta Udalak Ereñotzu Toki Entitate Txikiari egiten dion urteko ekarpenarekin konpentsatuko da.

BOSGARRENA. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA.

Bi erakundeek beren prebentzio-jarduerak koordinatuko dituzte. Toki-erakunde txikiak bermatzen du lantokiak segurtasun- eta osasun-araudia betetzen duela eginkizunak betetzeko.

SEIGARRENA. IRAUPENA.
Hitzarmenak 6 hilabeteko iraupena izango du gehienez ere, eta lehenago amaituko da baldin eta HHZko koordinatzaile lanpostuaren hautaketa-prozesua amaitzen bada. Edozein dela ere egoera, langilearen bitarteko izendapenak indarrean jarraituko du bi erakundeetan 6 hilabetez.

Hitzarmena automatikoki iraungiko da jatorrizko udalean funtzionarioaren izendapena eragin zuen arrazoia amaitzen bada.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena sinatzen dute:

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra
Hernaniko Udaleko alkatea

Olatz Juantorena Aizpurua
Ereñotzu Toki Entitate Txikiko alkate-udalburua

## 5. GALDERA ETA ESKARIAK

**Alkatea.-**Ez dakit errekorrera gerturatzen ari garen, baina honekin azken puntura iritsi gara. Lau minutuko plenoa. Eskaera eta galderen puntura iritsi gara eta ez dakit eskaera edo galderarik badagoen. Ez dakit publikotik zerbait badagoen aipatzeko... Badirudi ezetz, beraz, uste dut honekin errekorra egin dugula. Bost minututan martxoko plenoa bukatu dugu. Batzuentzat udaberriko oporren aldia izango da, beste batzuentzat ez. Izan edo ez, disfrutatu dezagula denok eta apirilean elkar ikusiko dugu berriz.

Hernanin 2026ko martxoaren 31an

***Idatziz gera dadin eta ondorioak izan ditzan egin dut ziurtagiri hau, alkatearen aginduz eta bere oniritziarekin***

***O.E***

***HERNANIKO ALKATEA***

*Ziurtagiri hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna, QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoaren bidez egiazta dezakezu.*



EKS | CSV: ESKU2b59d181-0d62-4325-8c6d-507930878cb8
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04010*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04010*